

MENDIRA IHES, MARRAZTEKO; BIZITZEKO

Andoni Urbistondo

Ana Azpilicueta donostiarra irudigile ezaguna bilakatu da azken urteetan (37 urte); Manaslun dago, Himalaian, Alex Txikonekin –lemoarra gailur ahalegin betean da lerro hauek idazteko unean–, hiri handietako eguneroko nekosoan atzean utzi, arnasa hartu eta marrazteko. Marraztuz egiten baitu ihes, aske sentitu. Bere ilustrazioek, eta Himalaiako behe kanpamentuko neguen egunerokoa azaltzeko duen naturaltasunak jarraipen handia dute sare sozialetan. Azpilicuetaren webguneak «La cabra tira al norte» lelo berezia erakusten du, eta «Como Cabras» ilustrazio liburua ere osatu du.

Bizitza gogorra da 5.000 metrora ne-
guan, goizero Manaslun (8.163 metro)
eta 7.000 metroko beste hainbat
mendi ikusiz esnatuta ere. Ana Azpi-
licueta donostiarrak hilabete pasa
darama Nepalen, Alex Txikonek
mendi hartara egin duen espedizio
kide gisa. Infografia egile da Espainiako “La Sexta” telebista ka-
tean, 2007az geroztik. Albistegi edo magazineta-
ko infografiak osatu eta koordinatzen ditu. Azken bi
urteetan 30 lagunekoa lantaldea eduki du bere ardu-
rapean, 50 ordu pasako lan asteak pilotzeraino, eta
aspaldi egin ez dituen opor luzexka batzuk egiteko
leihoa ireki zitzaion Alex Txikonen telefono dei ba-
tekin, abendu hasieran: «Berarekin Manaslura joan
nahi ote nuen galdetu zidan. Hurrengo deia nire na-
gusiari egin nion, bi hilabeteko oporrak hartuko ni-
tuela esateko».

Azpi goitizena du Azpilicuetak. Horrela deitzen
dio mundu guztiak. Sosak lortzeko egiten du lan ko-
munikazio enpresa handi batean, bere ilustrazioek
ez diotelako, oraingo, errentagarritasun ekonomi-
ko handirik eman. «www.anaazpi.com» da bere
webgunea, eta bertan klik eginez gero berehala ikus-
ten da sustraiak non dituen, Madrilen bizi bada ere.
«Ez dut nire jatorria ahazten. Amaren familia Her-
nanikoa da, Idarreta abizena, eta ahal dudan aldiro
Donostiara etortzen naiz, Ulian barrena galtzeko,
edo Adarramendi inguruan osteratxoa egiteko». Ga-
ztelaniazko esaldi ezagun bat erabiltzen du lelo
gisa, webgunean, bere bizitzeko modua ezagutaraz-



Ana Azpilicueta,
eskuinaldean, espedizio
kideekin batera
Manaslun. Hilabete
pasatxo daramate bertan.
Ana AZPILICUETA

teko: «La cabra tira al monte» esaldia
«La cabra tira al norte» bilakatu du iru-
digileak. Alegia, mendira jotzeaz gain,
iparraldera jotzen duela tartea duen al-
diro, dela Madril iparraldera, dela ipar
hemisferioan iparren dauden eskual-
deetara.

Txikitatik izan omen du marrazteko
joera, gaitasuna. «Berezkua da nigan.
Eta esango nuke hortik etorri dela in-
fografia egile izateko lanbidea ere». Ikus-
entzunezko Komunikazioa ikasi
zuen, eta gai askotako infografiak osa-
tzen ditu “La Sexta” telebista katean:
meteorologia, covid-19aren datuak...
Marraztea bere sentimenduak adie-
razteko bide gisa ulertzen du, komu-
nikatzeko tresna moduan, «marraz-
kiekin hitzen bitartez lortzen ez den
komunikazioa gauzatzen baita». Boli-
grafoarekin egiten ditu bere marraz-

kiak, orri solteetan, edo zikinak dau-
den orrietan. Akuarelak ere maite di-
tu, eta olio gaineko marrazkiekin bo-
rrokan aritzen omen da. Bidaiatzen
duenean tableta grafiko bat erabiltzen
du.

Egun batean, lana-etxea, etxea-lana
dikotomia nekagarria bilakatu zen Az-
pilicuetarentzat, eta mendira joaten
hasi zen, Madrilgo mendizerra ezagu-
nera. Duela 11 urte, hain zuzen ere.
Korrika ere hasi zen. Eta korrika ja-
rraitu, gaurdaino. 2016an bere ame-
tsetako bat bete zuen, Zegama-Aizko-
rri maratoi ezaguna bukatzea lortu
baitzuen. Azkena helmugaratu zen,
helmugan batu zen jendetzak bere ba-
lentria txalotzen zuen bitartean. Or-
duz geroztik korrikalarien zaindari la-
nak egiten ditu maratoi ezagun
horretako lehen zatian, bidea haien


atzetik eginez, eta oso harreman es-
tua du probako antolatzaileekin.

Aho bizarrik gabe onartzen du «pi-
sacampas» bat dela («belar zapaltzai-
le» moduan itzul genezake euskaraz):
«Sofako alpinista, nahiago baduzu». Mendi korrikalarien sufrimendua al-
darrikatzen du harro, proba luzeak
bukatzek zenbateko sakrifizioak da-
kartzan nabarmenduz. Sufritu ostean
helmugan edaten duen garagardo
freskoaren tamainako gauzarik ez da-
goela ere lasai botatzen du. Mendi ko-
rrikalarien inguruan duen pertzep-
zioa esaldi honekin laburbiltzen du:
«Mantsoa naiz, baina indartsua».

«IÑAKIREN ABENTURAK HIMALAIAN»

Marraski bat han, bestea hemen, Azpi-
licuetak «Como cabras» marraski libu-
rua osatu zuen 2019an (bere webgu-
nean dago ikusteko moduan, eta
salgai). Liburu horretan mendi korri-
kalariak bizitzen dituzten hainbat gai
lantzen ditu donostiarrak: nekea,
erronkak, eguraldia, materialaren
kontuak... Beti ironia edo sarkasmo
puntu batekin. Pasa den abenduan
Azpilicuetak parte hartu duen beste
proiektu batek ikusi zuen argia: «Iña-
kiren abenturak Himalaian» ipuina,
Elena Sagasetak idatzia, eta Iñaki
Otxoa de Olza zenak Himalaian bizi
izan zituen bizipenak biltzen dituen
txikientzako bildumaren parte (Sos
Himalaia Fundazioak argitaratu du
bilduma, eta biltzen den dirua Nepal-
go herritarren ongizate beharretara
bideratuko da).

Azpilicuetak 2008an Annapurnan
zendu zen mendizale nafarraren on-
darea mantentzeko modurik onena
haren bizipenei segida ematea dela
dio, «eta zeregin hori gure inguruko
txikienei marraztuz egitea baino gau-
za hoberik ez dago». Liburu horren hi-
tzaurrea Alex Txikonek idatzi du, eta
hor piztu zen Txikonen eta Azpilicue-
taren arteko harremana. Donostiarrar-
en marrazkiek eta lemoarraren hi-
tzek ekarri dute biak Manasluko
beheko kanpamentuan elkartzea. Az-
pilicuetak ez dauka eskarmentu han-
diegirik goi mendietan. Europako



Mendiak maite ditu, Marokoko Tub-
kal mendian ibilia da, eta hainbat
trekking-etan ere bai Nepalen, baina
ez zekien zortzi mila metroko espedi-
zio batean parte hartzea zer zen.

Baiezkoa eman zion Txikoni azkar,
dena den. Lemoako mendizaleak es-


Azpilicuetak marrazkietan islatzen
ditu bizipenak. Lerro hauen gainean,
lehen saiakerak huts egin ondoren
egindako marrazkia.
AZPI 2021

pedizioko inbentarioa egiteko zeregi-
na jarri zion, lan handia: «Espedizio
batean gauza asko lotu eta zenbatu
behar dira: kanpin dendak, bi hilabe-
terako jana, materiala... Katmandun
berrogeialdia egin behar izan genuen
hotelean, eta han aritu nintzen gauza
guztiak zerrendatzen, idazkari baten
pare». Manaslu mendira bidean Ne-
palgo herritarrek harrera beroa egin
zieten, pandemiak bisitariz umezurtz
utzi duelako herrialde hura, eta atze-
rritarren sosa bertakoen diru iturri
nagusi delako.

Azken herria atzean utzi eta urtarri-
laren 12an iritsi ziren taldekideak oi-
narrizko kanpamentura, 5.000 me-
trora. Polita, tokia, baina gogorra ere
bai. Honatx Azpilicuetaren testigan-
tza: «Gora eta beheara ibili nintzen
egun pare batean, eta oso gaizki egon
nintzen. Gerta zitezkeen gauza txar
guztiak gertatu zitzaizkidan: buruko
mina, edema bat aurpegian eta dena
hazita, burmuina buru barruan sar-
tzen ez zitzaidan sentsazioa, oxigenoa
hartu behar osatzeko...». Oinarrizko
kanpamentuko lehen egunetan mise-
ria handia pasatu omen zuen: «Ezin
bailarara jaitsi, jateko gogorik ere ez,
hilekoa 12 egun aurreratu zitzaidan,
triste nengoen, ezinak jota... Zure gor-
putzak ez du han egon nahi, eta gorpu-
tzaldi txarra sortuz jakinarazten dizu». Astebete luze egon zen egoera horre-
tan.

NATURALITASUNA ETA UMOREA

Goiz batean, eta bat-batean, dena bere
onera itzuli zen. Eta martxan jarri
zen. Azpilicuetak eguneko agenda be-
te samarra izaten du. Bertan gertatzen
denaren kronikak idazten ditu «Oxi-
geno» aldizkarian, kronika bereziak,
«sofako alpinista» batek egindakoak:
«Ez dut gauza teknikorik kontatzen,
ez naizelako alpinista. Gauzak hiriko
pertsona normal baten begietatik
kontatzen ditut, eta Himalaiako alpi-
nismoa oso jende gutxiren eskura da-
goen aukera dela aintzat hartuz. He-
men nago, mendizaleek zer egiten
duten kontatzen, ahalik eta modu
ulertterazenean».



Kroniketako naturaltasun hori Twitter sare sozialetan erakusten dituen bideoetan ere sumatzen da. Aste pare bat atzera, Manaslura igo nahi duten mendizaleek bidean errimaia bat topatu (glaziarrean sortzen diren arte-siak), eta gorantz egiteko beste bide bat bilatu behar izan zuten derrigor. Azpilicuetak bideo berezi bat egin zuen errimaia hori erakutsiz, eta kon-

takizun bitxi hau eginez: «Atzean ikusten duzue Manaslu, polita mendia, eta hemen Himalaian ohikoak diren errimaia eta serac-ak (zintzilik dauden izotz bloke handiak), kontuz ibiltzen ez bazara azpian harrapatu eta zure bizitzari bukaera ematen dioten gauzak». Garbiketa pertsonalaz eta eguneroko beste edozein gairi buruz ere naturaltasun handiarekin hitz

Manasluko espedizioan gertatzen denaren kronikak idazten ditu «Oxigeno» aldizkarian, kronika bereziak, «sofako alpinista» batek egindakoak: «Ez dut gauza teknikorik kontatzen, ez naizelako alpinista», azaldu du

«Eguzkia irteten denetik sartu bitarte denerako denbora asko dugu, eta beti bilatzen dut tartetxo bat marrazteko. Gure artean bizikidetasuna sana da, eta eguneroko hori islatzen saiatzen naiz marrazkietan»

«La Sexta» telebista katean lan egiten du Azpilicuetak. Bi hilabeteko oporrak baliatu ditu Txikonen espedizioan parte hartzeko. Irudian, Himalaian lanean, kronikak idazten eta argazkiak egiten.

Ana AZPILICUETA

egiten du Azpilicuetak, eta horrek jarraipen itzela eman dio sare sozialetan. Bere bideoek ehunka interakzio sortzen dituzte sarean.

Zer esan marrazkiei buruz. 40 bat egin ditu Manasluko oinarritzko kanpamentuan, eta 20 bat sareratu. Guztiekin liburu bat argitaratu nahiko luke etorkizunean: «Eguzkia irteten denetik sartu bitarte denerako denbora asko dugu, eta beti bilatzen dut tartetxo bat marrazteko. Gure artean bizikidetasuna sana da, eta eguneroko hori islatzen saiatzen naiz marrazkietan». Eguraldia txarra denean, eta denak lo-zakuan kiribilduta daudenean jartzen du martxan donostiarrak bere ideien makina.

Sormen lanean komeriak izan dituela aitortzen du, halere: «Hotza marraztea zaila da. Normalean zuriaren gainean marrazten dut, baina hemengo marrazkiak beltzaren gainean atera-


tzen ari zaizkit. Dendan sartuta, atarian 20 gradu zeropetik, begietan mina... Horrek isla zuzena du marrazkietan, hau ez delako opor toki ohikoa. Ez nago, demagun, Torreviejan. Horregatik, eguzkia dagoenean marrazten saiatzen naiz, altuera honetan halako goxotasuna sumatzea paradisuaren parekoa baita».

Kronika, bideo edo marrazkiekin, Azpilicueta bera ere harrituta dago izaten ari den jarraipen handiagatik: «Nire antzeko sentimendu edo pentsamoldea duen jendea dela esango nuke. Niri pasatzen zaizkidan gauzak kontatu edo espresatzen ditut, baina edozein herri-tarren bizipenak partekatzen dituen. Jendeak badaki ez naizela alpinista pectoa, baina era berean baita alpinistek eta ingurune gogor honi errespetu handia diedala ere».

Himalaismoaren aurpegi gaiztoa ere ezagutu du marrazkigileak, hainbat heriotza egon baitira K2 mendian. Sergi Mingote kataluniarra aurrena, Sadpara, Mohr eta Snorri gero... «Himalaian jendea hil egiten da, hori benetakoa da, baina ikaragarria da alpinistek beraiek nola bizitzen duten egoera hori. Esango nuke barneratuta dutela uneraren batean dena buka daitekeela, eta ikaragarria iruditzen zait hala jokatzeko gaitasuna izatea. Hemen pena handiarekin bizi izan ditugu heriotzak, hildakoak ezagunak baitziren Txikonentzat, baina beraiek ez dute drama bat egin egoerarekin, zer gerta prest daudelako». Une gogor horietan Azpilicuetak dioenez, abesti batean murgildu izan da, bere samina gainditzeko saiatzeko: DePedro taldearen «Déjalo Ir», abestia.

MARTXOAREN 5AN BUELTA LANERA

Alex Txikon eta lagunak ahalegin batean daude une honetan Manasluko gailurra iristeko erronkan, eta Azpilicuetak goi mendietan egin duen egonaldiko laburpena marraztu du GAUR8 astekarirako. Martxoaren 5a bitarteko tartea dauka, lanera, errutinara bueltatzeko. Menditik denak sano jaitsi, eta Pokhara hirian egun batzuetan lasai egon nahiko luke, gozatzen. Bere bizitzako inflexio puntu bezala ikusten



Manasluko espedizioan marrazkien bidez ari da islatzen bere bizipenak Azpilicueta. Marrazki horiekin liburu bat osatu nahiko luke.
Ana AZPILICUETA

baitu bidaia hau. Mendiari buruzko marrazkiekin bizirauteko zirrikitua bilatu nahiko luke, edo apalago, “La Sexta” telebista katean mendiko kontuak gehiago azaltzea, berak egindako kronika, marrazki eta bideoen ondoren.

Lortuko ez balu ere badu B plana: sustraietara bueltatu. Zegamara, edo Donostia eta Hernani aldera, Adarramendira. Mendira ihes, beti. Marrazteko, bizitzeko.

«Himalaian jendea hil egiten da, hori benetakoa da, baina ikaragarria da alpinistek beraiek nola bizitzen duten egoera hori. Esango nuke barneratuta dutela uneraren batean dena buka daitekeela. Ikaragarria iruditzen zait gaitasun hori»

Menditik denak sano jaitsi, eta Pokhara hirian egun batzuetan lasai egon nahiko luke, gozatzen. Bere bizitzako inflexio puntu bezala ikusten baitu bidaia hau. Mendiari buruzko marrazkiekin bizirauteko zirrikitua bilatu nahi du